

# 'ZIPI ETA ZAPE ETA KAPITAINAREN IRLA' FILMERAKO GONBIDAPENEN ZOZKETA FACEBOOKEN Parte-hartzearen oinarriak

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Zozketan parte hartzeko, EZAE elkartearen Facebookeko orria jarraitu beharko dute, parte hartu aurretik 'Atsegin dut' klikatuz.
- Parte-hartzaileek proposatutako edukiak euren Facebookeko profilean partekatu beharko dituzte gonbidapenen zozketan sartu ahal izateko.

## ZOZKETAK

- Bost gonbidapen bikoitz zozketatuko dira proposatutako edukiak partekatu dituzten jarraitzaileen artean.
- Parte hartzeko epea igandera arte, uztailak 17, egongo da zabalik. Zozketa uztailaren 18an, astelehenean, egingo da eta bost irabazle eta bost ordezeko aukeratuko dira zoriz.

## IRABAZLEEN KOMUNIKAZIOA

- Zozketa egin eta gero, irabazleekin jarriko gara harremanetan posta elektronikoz.
- Sarituaren eta ordezekoaren izena eta abizena Facebooken argitaratuko dugu.
- Sarituak uztailaren 20a baino lehen, asteazkena, onartu beharko du saria. Bestela, txanda pasako zaio eta ordezekoarengana joko dugu.

## ADOSTASUNA

Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

## IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dugu parte-hartzailearen datu pertsonalak EZAE elkartearen

jabetzako fitxategi batean gordeko direla, zozketako partaideen datuak kudeatzeko eta aurrerantzean EZAEn informazioa bidaltzeko helburuarekin. Partaideei jakinarazten diegu euren datuak ez dizkiegula hirugarren enpresei emango, eta datu horiek inori utzi aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Legearen arabera, norbere datuak ikusteko, zuzentzeko edota baliogabetzeko aukera dute parte-hartzaileek, eta horretarako gurekin jar daitezke harremanetan [info@ezae.eus](mailto:info@ezae.eus) emailera idatziz.